

# ERREMINTOA

BY XISTERA

JOKAMOLDE GUZTIEN ALDIZKARIA



Argazkia: Jon Leunda

## Hasi da Xisterako denboraldi berria

# • IRITZIA •

## **Gauzak ari dira normaltasunera itzultzen**

Nahiz eta zalantza askorekin izan, horrela eskatzen baitu egoerak, gauzak ari dira normaltasunera itzultzen, eta baita pilota erreminta ere.

Erremontea izan zen hasten lehena, eta ondotik besteak ere badoaz apurka-apurka gauzak egiten, nahiz eta oraindik normaltasun horretara iristeko falta den. Zalantzez beteriko uneak dira hauek, aurrera egin beharrekoak, baina beti geratu beharra izango ote denaren zalantzarekin.

Badirudi hau izango dela datozen hilabeteetan bizi beharrekoa, eta beraz honekin jarraitu beharko da aurrera. Beldurra izatea librea da, eta normala da dugun egoera honek nolabaiteko beldurra eta egon ezina sortzea, baina aurrera egin beharra dago, eta pilota erremintak ere horrela egin beharra dauka.

Une honetan hau da daukaguna, eta badirudi denbora batez horrela izango dela, eta beraz ahalik eta normalen jarraitzea besterik ez da tokatzen, bestela atzera geratzeko arrisku handia izango baita, eta atzera geratzen denak, gero arazoak izan ditzake bere lekua topatzeko.



Argazkia: Erreminta

**HARPIDETU / SUSCRIBETE / S'ABONNER**

**644 481 935 - [erreminta@xistera.eus](mailto:erreminta@xistera.eus)**

**40€ / urtean-año-année**

Zure buzoian jasoko duzu / La recibirás en tu buzón / Tu la recevras dans ta boîte aux lettres



**XISTERAren laguna egiten bazara**

Si te haces amigo de XISTERA / Si tu deviens ami de Xistera  
[www.xistera.eus/go/ez-dauka-preziorik](http://www.xistera.eus/go/ez-dauka-preziorik)

**30€**

**ERREMINTA**  
BY XISTERA

**Argitaratzailea:**

Xistera Kirol Kluba

**Helbidea:** Elexalde-Zeeta 44,  
48313 Ereño

**Diseinua:** Belako Publizitatea  
eta Komunikazioa (943698996 -  
[www.belako.info](http://www.belako.info))

**Publizitatea:** 644 481 935 -  
[erreminta@xistera.eus](mailto:erreminta@xistera.eus)

**Tirada:** online irakurtzeko  
alea, ez da paperean inprimatu

**Lege-gordailua:** BI-126-2019

**OHARRA:** Erremintak ez ditu bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Debebatua dago aldizkariko edozein testu edo argazki idatzizko baimenik gabe erabiltzea. Aldizkari hau doan banatzen da eta iragarleei esker argitaratzen da.

# • EDITORIAL •

## **La actividad está volviendo a su normalidad**

Aunque sea con muchas dudas y con incertidumbre, las diferentes actividades deportivas y también la pelota herramienta, está regresando a su actividad normal.

El remonte fue el primero en arrancar y después le han seguido otras modalidades y poco a poco todas ellas están volviendo a la actividad, aunque todavía falta para llegar a esa normalidad que tod@s queremos llegar. Son momentos de muchas dudas, pero no hay otra que seguir adelante, aunque con esa duda de que a lo mejor se tendrá que volver a parar.

Pero, parece que esto va a ser la nueva normalidad en los próximos meses, y con ello tendremos que seguir. Es libre tener miedo y más con esta situación de inquietud que tenemos, pero hay que seguir avanzando, mirar hacia adelante y la pelota herramienta también lo tiene que hacer.

Ahora mismo es lo que tenemos y parece que en un tiempo es lo que vamos a tener y lo mejor es intentar seguir con la normalidad, aunque no sea fácil, de lo contrario se corre el riesgo de quedarse descolgado de otras actividades deportivas.



Argazkia: Erreminta

## **L'activité revient à la normalité**

Bien qu'il soit avec beaucoup de doutes et d'incertitude, les différentes activités sportives ainsi que la pelote sont enfin de retour à leur activité normale.

Le remonte a été le premier à démarrer, suivi de près par d'autres modalités, et peu à peu tous sont de retour à l'activité, même si elle est encore à atteindre cette normalité que nous tous et toutes voulons récupérer. Ce sont en effet des moments de nombreux doutes, mais il n'y a pas d'autre voie que celle de continuer, malgré ce doute qu'il peut avoir à s'arrêter à nouveau.

Il semble que cela va être notre nouvelle normalité dans les prochains mois, donc nous devons nous y faire avec cela. Avoir peur est bien libre, et plus avec cette situation d'agitation que nous traversons, mais vous devez continuer à avancer, à regarder vers l'avant, et la pelote doit le faire aussi avec vous.

En cet instant même, c'est ce que nous avons et il paraît que c'est ce que nous allons avoir pendant un bout de temps, donc la meilleure attitude est celle de s'accrocher à cette normalité, bien qu'il ne soit pas facile. Autrement on prend de risque de rester à l'écart, et, attention, ceux qui resteront à l'arrière, pourront avoir du mal à retrouver une place.

# Arbe-Danel Mandiola eta Aaron-Uranga sartu dira Xistera Masters Txapelketako finalerdietara

Arbe-Danel Mandiola eta Aaron-Uranga sailkatu dira Xistera Masters Txapelketako finalerdietara. Horrela, finalaren atarikoan, Arbek eta Mandiolak, Gonzalezen eta Manciren aurka jokatuko dute, eta Aaronek eta Urangak, berriaz, Antxonon eta Goixerriren aurka. Finalerdia abuztuaren 14an jokatuko dira Markina-Xemeinen. Torneo honetan iazko Xistera Zirkuituko onenak ari dira jokatzen.

## Arbe-Danel Mandiola 2 Alberro-Zugaitz 0 (15-6 eta 15-8)

Arbek eta Mandiolak erabateko nagusitasunarekin lortu zuten finalerdietarako txartela, aurkariak baino gehiago izan baitziren. Lehen jokoan hasieran izan zen oreka apur bat, hortik aurrera Arberen erara ibili

baitziren aurkariak. Atzean Danel Mandiola ongi aritu zen, eta berdeak ez zuten aukerarik izan.

Bigarren jokoak ere aurrenekoaren tankerakoa izan zen. Berriro ere gorriak jaun eta jabe izan ziren, eta berdeek, oraingoan ere errazatasun handiak eman zituzten. Hala ere, amaiera aldera Alberrok eta Zugaitzek markagailua itxuratze-ko modua egin zuten, 12-3 galtzen aritu baitziren.

## Aaron-Uranga 2 Zuloaga-Mandagaran 0 (15-11 eta 15-9)

Aaronek eta Urangak lortu zuten finalerdia jokatze-ko txartela, eta neurketa hau aurrenekoa baino hobea izan zen. Lehen jokoan atzean egon zen gakoa, Urangak aurkaria mendean hartu baitzuen eta horrek bidea erraztu

zion Aaroni. Aurrelari gasteztarrak tanto dotoreak egin zituen. Beste aldean Mandagaranek ezin izan zuen Uranga gainditu, hala ere aurrean Zuloaga ongi aritu zen, tanto onak burutuz. Partida 5-5ekoan apurtu zen, gorriek 6-0eko partziala sartu baitzuten, partida erabakiz.

Bigarren jokoak ere bide beretik jarraitu zuen, baina oraingoan gorriek hasieratik lortu zuten hiru tantoko aldea, eta errenta horri eusteko gai izan ziren. Hala ere, gakoa 10-7koan egon



Argazkia: Jon Leunda

zen, izan ere hor Zuloagak sekulako jokaldia egin zuen txapa gainean moztuz, baina doi-doi pilotak marra gantitu zuen. 10-8 jartzeko aukeratik, 11-7ra pasatu ziren, eta neurketa erabakita geratu zen.

## Arbe-Danel Mandiola y Aarón-Uranga se meten en las semifinales del Xistera Masters

Arbe-Danel Mandiola y Aarón-Uranga lograron el pase a las semifinales del Xistera Masters, tras derrotar en los cuartos de final a Alberro-Zugaitz y a Zuloaga-Mandagaran, respectivamente. De esta manera, en las semifinales, Arbe y Mandiola tendrán que jugar ante González y Manci, mientras, que Aarón y Uranga lo harán ante Antxon y Goixerri, el 14 de agosto en Markina-Xemein. En este torneo están jugando los mejores pelotaris del Circuito Xistera 2019.

Arbe y Danel Mandiola lograron con total autoridad el pase a las semifinales del Xistera Masters tras superar con solvencia a Alberro y Zugaitz 2-0 (15-6 y 15-8).

Aarón y Mandagaran se llevaron el segundo billete para las semifinales, tras superar a Zuloaga y Mandagaran, en un duelo que fue mejor que el primero 15-11 y 15-9

# Beaskoetxea eta Lekerika nagusi izan dira Markina-Xemeinen

## Gernikarrek Hormaetxearen eta Lopezen aurka irabazi zuten Master Seriesa

Denboraldi honetako Jai Alai World Tour zirkuituaren lehen txapelketa irabazi dute Diego Beaskoetxea eta Unai Lekerika gernikarrek. Markina-Xemeingo Masters Seriesaren finala eramán zuten Hormaetxearen eta Lopezen aurka 2-0 (15-8 eta 15-13) irabazita.

Alex Hormaetxea e Imanol Lopez ziren favoritoak, baina Diego Beaskoetxeak eta Unai Lekerikak euren aukeretan sinistu, eta dena emanda, garaipena eskuratu zuten. Partidu bikaina jokatu zuten, eta erakustaldia emanda, merezitako garaipena lortu zuten.

Aurreneko jokoan hasiera orekatua izan baldin ba-

zen ere, 7-5etik aurrera zuloa ireki zuen txapela jantzi zuen bikoteak eta azkenean uste baino errezago lortu zuten lehen puntua.

Bigarrenengoan gauzak estuago joan ziren. Hormaetxea eta Lopez 1-4 aurreratu ere egin ziren, baina seinako berdinketaren ostean aurretik jarri ziren gorriak, eta bigarren puntua eta txapelak lortu zituzten.

***Euren aukeretan sinistuta, eta dena emanda, garaipena eskuratu zuten gorriek***



Argazkia: Jai Alai News

## Beaskoetxea y Lekerika ganan en Markina-Xemein

El frontón Uni de Markina-Xemein fue el que levantó el telón del Máster Series del Jai Alai World Tour de cesta punta, donde Beaskoetxea y Lekerika se alzaron con el triunfo tras derrotar a Hormaetxea y a López 2-0 (15-8 y 15-13).

En el primer juego el inicio fue igualado, pero tras el 7-5 Beaskoetxea y Lekerika se fueron en el marcador, sumando el primer punto. En el segundo, Hormaetxea y López comenzaron muy fuertes, poniéndose 1-4 por delante en el marcador, pero tras el 6-6, Beaskoetxea y Lekerika volvieron a coger las riendas del juego, para sumar el segundo punto y el título.



# Antxonek eta Zabalak irabazi dute Markina-Xemeinen



Argazkia: Andoni Iparragirre

Masters Seriez gain, profesionalak eta amateurak nahastuta jokatu da baita beste torneo bat ere Markina-Xemeinen, eta hori Antxonek eta Zabalak eraman zuten, finalean Barandika eta Ibarluzea 30 eta 21 mendean hartuta. Txapela jantzi zuen bikoteak kontrolpean izan zuen finala gehienan.

## Antxon y Zabala ganan en Markina-Xemein

Además del Mástrs Series, también se ha disputado otro Torneo en Markina-Xemein, con profesionales y aficionados, donde han ganado Antxon y Zabala, tras derrotar en la final disputada en el frontón Uni a Barandika e Ibarluzea 30-21.



# Bizkaia

*foru aldundia*  
*diputación foral*



Argazkia: Jai Alai News

# Olharanek eta Lopezek eraman dute Donibane Lohizuneko aurreneko Masterra

Zestako udako denboraldia ari da jokatzen Donibane Lohizunen, eta amaitu da aurreneko Masterra. Bertan, Olharan eta Lopez izan dira onenak, finalean Erkiaga eta Ihitsage 2-0 mendena hartuta (15-8 eta 15-9).

Markagailuak erakusten duen moduan, garaipena lortu zuen bikotea nagusi izan zen jokaturako bi jokoe-tan.

## Olharan et Lopez ont remporté le premier Master de Donibane Lohizune

La saison d'été de cesta est en train de se jouer à Donibane Lohizune, et le premier Master est déjà fini. Là, les meilleurs ont été Olharan et Lopez, car ils ont dominé Erkiaga et Ihitsage en finale 2-0 (15-8 et 15-9)

Tel que les marqueurs l'ont affiché, le duo qui a remporté la victoire a été en tête dans les deux jeux joués.



**Belako**  
Publizitatea eta komunikazioa

*Diseño e impresión para eventos*

943.698.996 - 660.913.777 · belako@belako.info  
Herriko plaza 2, baxua; Anoeta · www.belako.info



89, avenue André Ithurralde  
64500 SAINT JEAN DE LUZ  
☎ 05 59 26 02 52

# Mikel Elkorobarrutia: «Oposaketak prestatzen harrapatu ninduen itxialdiak»



Argazkia: Jon Leunda

## Ostiralero herrian bertan partidak jokatzeko baditu ere, txapelketak hasteko irrikitan dago pilotaria

Mikel Elkorobarrutia Markina-Xemeingo pilotaria da, Gaur egun, Xisteran dabilzanen artean erreferenteetako bat bihurtu da. Denbora luzez geldirik egon behar izan eta gero, berritoki ere jokatzeko hasteko gogoz dago.

### -Nola joan zen itxialdia?

-Egia esan, neri ez dit aparteko eraginik egin, izan ere oposaketa batzuk prestatzen ari nintzen, eta ondorioz bai ala bai etxean geratu beharra neukan haiek prestatzeko. Arlo fisikoa lantzeko bai eragin didala, eta azken batean hor gehienak bezala interneten ariketak bilatuz mantendu ahal izan naiz, eta baita ere geldiko txirridarekin ere.

### -Frontoia ireki bezain azkar hasi zinen entrenatzen?

-Bai, nahiko azkar hasi ginen. Hasieran binaka baka-rik uzten zuten, eta horrela aritu ginen. Hasiera hartan giharretako minak

eta izan genituen, baina gustura, hori baita gure saltsa.

### -Jadanik lehiatzen hasteko irrikaz?

-Bai, gogoarekin, baina ostiraletan Markina-Xemeinen partidak jartzen dizkigute, eta hor nolabait ere gure neurketak jokatzeko modua izaten dugu, eta horrek apur bat asetzen gaitu, baina dudarik gabe lehiaketak eta torneok jokatzeko gogoia ere egin da nago.

### -Atzera begiratu, nola ikusi zenuen iazko Xistera Zirkuituan?

-Hasi ongi hasi nintzen, baina txapelketak aurrera egin zuen moduan behera egin nuen. Ez nintzen orain bi urte bezain ondo ibili, eta ez dakit zergatik. Ez nintzen oso gustura geratu, lehen esan dizudan bezala hasi bezala ez nuelako jarraitu.

### -Eta Interjain?

-Ez eta han ere. Egia esan hiru partida kitarakoan

**Bidaiatu Konpainia onean.**

AUTOBUSAK  
**Aizpurua**

Tel.: +34 943 36 32 90  
www.autocares-aizpurua.es



## Mikel Ekorobarrutia: «El confinamiento me cogió preparando las oposiciones»

Mikel Ekorobarrutia es un zaguero de Markina-Xemein que se ha convertido en uno de los referentes de Xistera en su puesto. Tras pasar un tiempo sin poder salir de casa, como el resto, el vizcaíno está con ganas de regresar a la competición.

**-¿Cómo fue el confinamiento?**

-La verdad es que a mí no me afectó demasiado, ya que estaba preparando unas oposiciones y sí o sí tenía que estar en casa. Sí me afectó en lo deportivo y como la mayoría aproveché con ejercicios de internet y con la bicicleta estática.

**-¿Empezó a entrenar nada más abrir el frontón?**

-Sí. Al principio dejaban de dos en dos y ya empezamos en ello, con agujetas en el retorno, pero contentos de hacer lo que nos gusta.

**-¿Con ganas de empezar a competir?**

-La verdad es que sí, aunque en Markina-Xemein tenemos la suerte que nos ponen partidos los viernes a la noche y con eso nos apañamos un poco, pero indudablemente ya estoy con ganas de volver a la competición.

**-¿Qué conclusiones sacó de la pasada edición de Xistera?**

-La verdad es que empecé bien, sacando puntos, pero poco a poco fui a menos y no sé cual fue la razón, y por ello no me quedé muy a gusto.

**-¿Y, en el Interjai?**

-Tampoco, ya que no nos salieron las cosas tal y como queríamos. Perdi-



Argazkia: Jon Leunda

mos tres partidos en el desempate y eso te fastidia. No jugamos mal y estuvimos cerca de ganar partidos, pero al final no lo conseguimos.

**-¿Qué objetivos se había marcado para esta temporada?**

-Nada especial. El objetivo en el Circuito de Xistera era al menos igualar lo de la temporada pasada y a partir de ahí ir mejorando en todo lo posible e intentar lograr el billete para jugar el Interjai de la próxima temporada.

galdu genituen aurretik jardun ostean, eta horrek amorru apur bat ere ematen du.

**-Zein helburu zenituen jarrita denboraldi honarako?**

-Helburu zehatz bat ez ni-

zuke esango. Nire aurrenekoa izango litzateke iazko lana gutxienez berdintzea, okerrago ez egitea, eta hortik aurrera dena hobetzen joatea eta Xisterako Zirkuituan ahal izanez gero, Interjairako txartela lortzea.

**ERREMINA**

BY XISTERA

JOKAMOLDE GUZTIEN ALDIZKARIA

Iragarri zaitez hemen

📞 943 603 440 📞

🌟 Anunciate en nuestras páginas



# Urrizak eta Zubirik irabazi dute Galarretako 50. Urteurren Torneoa

## Urriza y Zubiri se llevan el Torneo de Galarreta

Urrizak eta Zubirik erraz gainditu zituzten Juanenea eta Endika, 16-35, Galarretako 50. Urteurren Txapelketan. Iruñeko eta Goizuetako bikoteak mailarik hoberenean jokatu zuten eta aurkariak ezinean aritu ziren.

Urriza hasieratik jokoa sartu zen eta tantoak erraz amaitzen zituen. Zubirik Endikari eutsi bakarrik ez,

gainditu ere egiten zuen. Sakearekin bikain ibili zen eta aukerarik ez zuten eman. Partida berdindua eta oso bizi hasi zen, baina launako berdinketa eta gero 0-8ko partziala egin zuten Urrizak eta Zubirik, zortzi tantoko abantailari ongi eutsi zioten. Hortik aurrera abantaila ongi eutsi zuten. Gorriak saiatu ziren, lau tantora ere ger-

turatu ziren, 8-12, baina ondoren aldea bederatzira zabaldu zuten, 11-20.

Lehenengo atsedena eta gero jokoa ez zen asko aldatu. Pilota bizi ibili zen eta tanto borrokatuak ikusi ziren, hori bai ia beti urdinen alde erortzen ziren. Urrizaren defentsa ikaragarria izan zen eta erasoan Zubiri eta biak ezin hobeto jardun ziren. 15-22koa Juanenenak egin zuen eta hortik aurrera bikote bakarra egon zen kantxan. Abantaila 15-26ra zabaldu zuten eta Juanenearen azken tantoa eta gero beste bederatzita jarraian egin eta 16-35 itxi zuten markagailua.

Urriza y Zubiri se llevaron el Torneo de Galarreta, que se celebró por el 50 aniversario del recinto hernaniarra. Lo hicieron con mucha autoridad, ganando a Juanenea y a Endika 16-35.

Los azules fueron superiores a los rivales. Pese a la igualdad inicial, Urriza y Zubiri comenzaron a abrir hueco en el marcador, para ir ampliando cada vez más las diferencias y conseguir con mucha holgura la victoria, llevándose así las primeras txapelas tras el confinamiento.

Noticias de

**Gipuzkoa**

# Uterga-Garcés, en Primera, y Aldabe-Barrikart, en Segunda, se llevaron el Iruñeako Alde Zaharreko Erremonte Txapelketa

La calidad de Uterga marcó la final de Primera, que mostró todo tipo de remates

Uterga-Garcés, en Primera categoría, y Aldabe-Barrikart, en Segunda, se llevaron en el frontón Iruñeako Alde Zaharreko VI Erremonte Txapelketa, organizado en beneficio de Adano. Uterga-Garcés se impusieron por 35-29 a Ezkurra II-Agirrezabala, en una final marcada por la calidad de Uterga para acabar los tantos, con todo tipo de remates.

El duelo comenzó con un 6-1 favorable a Uterga-Garcés, que tuvo rápida respuesta de Ezkurra II-Agirrezabala (6-6). Fue un espejismo, ya que los vencedores abrieron brecha con importantes ventajas, lo que les valió para lograr las txapelas

En Segunda, Aldabe-Barrikart rubricaron su torneo perfecto, en el que acabaron ganando con holgura todos los partidos, y

también hicieron lo propio por 35-19 a Jabalera-Saldias en la final imponiéndose días.

## Uterga-Garcés, Lehen Mailan, eta Aldabe-Barrikart, Bigarren Mailan, izan dira Iruñeako Alde Zaharreko Erremonte Txapelketako irabazleak

Uterga-Garcés, Lehen Mailan, eta Aldabe-Barrikart, Bigarren Mailan, izan dira Iruñeako Alde Zaharreko Erremonte Txapelketako irabazleak, Iruñeako Labrit pilotalekuan jokatuako finaletan. Maila nagusikoan, Utergak eta Garcesek nagusitasunez hartu zituzten mendean Ezkurra II.a eta Agirrezabala, 35-29.

Irabazleak azkar aurreratu ziren 6-1, baina aurkariak neurketa 6-6 berdintzea lortu zuten arren, gero txapela jantzi zuen bikoteak berahala egin zuen ihes berriro ere, eta azkenean merezitako txapelak jantzi zituzten.

Bigarren Mailakoan, berriz, Aldabek eta Barrikartek sekulako txapelketa egin dute, jokatuako partida guztiak erabateko nagusitasunez irabaziz, eta finaletan ez ziren gutxiago izan, Jabalera eta Saldias 35-19 menderatu baitzituzten.



Argazkia: Fundación Remonte

### ERREMINATA

BY XISTERA

JOKAMOLDE GUZTIEN ALDIZKARIA

Iragarri zaituz hemen

📞 943 603 440

• Anunciate en nuestras páginas

# El Circuito 2020 de pala ya está marcha



Argazkia: In Pala

## De momento se han disputado tres torneos, el de Zalla, Plentzia y Armintza

El primer torneo de pala del verano, celebrado en Zalla, se lo llevó la pareja formada

por Necol e Ibargarai, que en la final se impuso 1-3 a Gaubeka y Gordón.

A pesar de la derrota, los subcampeones se anotaron el primer joko por 10-9, aunque los tres siguientes fueron para Necol e Ibargarai 9-10, 5-10 y 5-10.

Fusto y Gordón le dieron la vuelta a la final para adjudicarse los tres siguientes jokos 6-10, 8-10 y 8-10, para así llevarse las txapelas.

Fusto y Gordón, por su parte, se llevaron la final del segundo torneo de verano de pala, el que se celebró en Plentzia, tras superar en la final a Gaubeka e Ibai Pérez 1-3. Los favoritos se adelantaron en el marcador tras adjudicarse el primer joko 10-7, pero

El tercer torneo que se ha disputado antes de cerrar esta edición ha sido el de Armintza, donde Necol e Ibai Pérez se impusieron 3-1 a Garate y Gordón, pese a que comenzaron perdiendo 9-10, aunque ganaron los siguientes tres sets por idéntico resultado, 10-5.

## Abian da palako 2020 Zirkuitua

Abian da jadanik palako 2020 Zirkuitua, eta dagoeneko hiru lehiaketa jokatu dira. Aurrenekoa izan zen Zallan jokatu zena, eta bertan, Nicol eta Ibargarai izan ziren onenak, finalean Gaubeka eta Gordon 1-3 mende hartuta (10-9, 9-10, 5-10 eta 5-10).

Bigarrena, berriz, Plentzian jokatu zen, eta Fusto eta Gordón izan ziren garaipena lortu zutenak,

finalean, Gaubeka eta Ibai Perez 1-3 (10-7, 6-10, 8-10 eta 8-10) menderatuta.

Edizio hau itxi aurretik jokatu den azkena Armintzan lehiatu zena izan da. Eta han Necol eta Ibai Perez izan dira garaipena lortu dutenak, Garate eta Gordon 3-1 menderatuta. Aurreneko jokoa 9-10 galdu arren, beste hiruak 10-5 eraman zituzten.



# Arregi eta Huegun izan dira palako Euskal Herriko Txapelketako onenak

Final oso estua izan zen, 25 eta 21 emaitzarekin amaitu zena

Arregik eta Huegunek irabazi zuten Oiartzunen jokatu den Euskal Herriko pala Txapelketa irekia, final eder baten ostean. Ordu eta erdi pilotan aritu ostean, 25 eta 21 irabazi zuten Aizpururen eta Erbururen aurka. Txapela jantzi zuen bikoteak ia beti izan zuen abantaila, eta hori ongi kudetau zuten, baina finala galdu zuen bikoteak



ere lan ona egin zuten, eta irabazleak ongi estutzeko

gai izan ziren.

Bigarren Mailako finala ere oso orekatua izan zen, eta bertan Gallastegik eta Etxeberriak 25 eta 24 irabazi zieten Eskuderoi eta Belokiri. Azken hauek ia partida osoan zehar aurretik aritu ziren, baina azken txanpan partidari buelta eman, eta garaipena lortu

zuten Gallastegik eta Etxeberriak.

Hirugarren Mailan, Zurututza eta Manterola izan ziren txapela eraman zuten pilotariak, finalean Agirre eta Mendigain 25 eta 23 mendean hartuta. Partida hau ere oso polita izan zen, bi bikoteen artean ez baitzen alderik egon.

## Arregi y Huegun han sido los mejores de Euskal Herria en el Abierto de pala

Arregi y Huegun ganaron la final del Abierto de Euskal Herria de pala, tras derrotar en al final a Aizpuru y a Erburu por un ajustado 25-21. El envite fue muy nivelado, aunque los campeones estuvieron siempre por delante en el marcador. Pese a ello, Aizpuru y Erburu nunca desistieron y continuaron trabajando, apretando mucho a sus rivales.

La final de Segunda todavía fue más nivelada, con victoria para Gallastegi y Etxeberria sobre Eskudero y Beloki 25-24. Estos últimos estuvieron por delante casi siempre en el marcador, pero al final acabaron perdiendo.

La final de Tercera también fue muy buena, con victoria para Zurututza y Manterola, que superaron a Agirre y a Mendigain 25-23, en otro buen partido.

**RED NETWORK LAWYERS**  
**ABOGADOS**

**SU DESPACHO DE ABOGADOS**  
**PERSONAL EN EL MUNDO**

Arenal, 6 -6º dpto.604 C.P. 48005 BILBAO

944.790.214



Argazkia: Laxoa elkarte

## Los ganadores se fueron creciendo en el partido, hasta lograr la victoria

Arraiotz Sagardia se llevó la final de Copa de laxoa, tras superar a Irurita Miguelena por un contundente 9-3. El partido tuvo un comienzo muy peleado en la que se tardó casi una hora en llegar al 1 – 2 para Arraiotz. Aun así, poco a

poco los de Arraiotz se fueron creciendo y los de Irurita desaprovecharon un par de cuarentas que pusieron el marcador en 1 – 3. Ahí es cuando Mikel Mindegia sacó el martillo pilón y comenzó a meter todas las pelotas a la estraca. Poco a

poco, fueron cogiendo ventaja en el marcador.

Irurita reaccionó buscando el saque de bombite, y consiguieron impacientar a los de casa. Pero poco a poco, con el martillo de Mikel Mindegia, los de Arraiotz siguieron concen-

trados a lo suyo hasta llegar a un favorable 3 – 6.

Al final, los de Arraiotz se vinieron arriba y consiguieron un dominante 3 – 9 que les hace justos campeones de esta edición de copa 2020 tan atípica debido al virus.



## Arraiotz Sagardiak irabazi du Laxoako Kopa

Arraiotz Sagardiak eraman zuen laxoako Kopa, Arraiotzen bertan jokatutako finalean 3-9 Irurita Miguelenea mendean hartuta. Hasiera oso estua eta gogorra izan zen, eta arraiotzarrei ia ordu bat pasa zitzairen 1-2 aurreratu aurretik.

Hortik aurrera zuloa egiten joan ziren, geroz eta tar-te handiagoa zabalduz, eta amaieran ongi merezitako garaipena erdietsi zuten, gaitza medio dela laburtuta jokatu den lehiaketa honetan.

# Oiartzungo Txost izan da Gipuzkoako erreboteko talderik onena

Oiartzungo Txost taldea izan da erreboteko Gipuzkoako onena, finalean Zubieta 13 eta 12 mendean hartuta, Oiartzunen jokatu zen finalean. Emaitzak argi eta garbi erakusten du nolako finala izan zen, oso ona izan baitzen, eta emozioz beterikoa, azkenean tanto bakar bateko alde-



rekin, eta hiru ordu eta ostean irabazi baitzuen Oiartzungo taldeak.

**Txost de Oiartzun ha sido el mejor de Gipuzkoa en rebote**

Txost de Oiartzun ha sido el mejor de Gipuzkoa en rebote, tras derrotar en la final a Zubieta, en un duelo muy disputado, tal y como indica el resultado, 13-12. Los oiartzuarras y los zubietarras ofrecieron un gran partido a lo largo de tres horas y cuarto que duró la final disputada en Oiartzun.

# AVÍA



**Irizar**

[www.irizar.com](http://www.irizar.com)